

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

3674

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 24koa, Langileriaren kudeaketa zuzendariarena, zeinaren bidez epea ezartzen baita egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdian, Hezkuntza Saileko hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzekoan, eskatutako baldintzak betetzen dituzten hautatutako pertsonak dagozkien lan-kontratuak formalizatzeko eta argitara ematen baita prozesu horretan hautatutako pertsonen laugarren zerrenda osagarria.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 29ko EHAA) enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako oinarriak onartu ziren, Hezkuntza Saileko hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Agindu horren bidez hezkuntza-administrazioaren zerbitzuko lan-legepeko langile finko izateko deialdia egin zen egonkortzeko salbuespenezko prozesu hauetarako:

- Hezkuntza Laguntzako Langileen kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Transkribatzaile eta material-egokitzaileen kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Zeinu Hizkuntzako interpreteen kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Fisioterapeuten kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Okupazio Terapeuten kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Gizarte-langileen kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko abenduaren 26ko Ebazpenaren bidez argitara eman ziren prozesu horietan hautatutako pertsonen eta esleitutako lanpostuen behin betiko zerrendak.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar zituzten pertsonen zerrenda, izan ere, eskatutako dokumentazioa ezarritako epearen barruan aurkeztu zuten (ebazpen horren I. eranskina), bai eta, arrazoi justifikatuarekin, lortu nahi zen lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala zehazten duen osasun-azterketa egin gabe zuten pertsonen zerrenda ere (ebazpen horren II. eranskina).

Bestalde, ebazpen horren bidez (Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko abuztuaren 18ko Ebazpenaren bidez aldatua) argitara eman zen ordezkoen zerrenda, puntuazio-hurrenkeraren arabera ordenatua (ebazpen horren V. eranskina), eta enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutzat jo zituen izengaiak; halaber, epea ezarri zen egiaztagiria aurkezteko eta osasun-azterketa egiteko.

Aipatutako aginduaren 9.4 oinarrian aurreikusitako osasun-azterketa II. eranskin horretan zerrendatutako pertsonen egin ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko uztailaren 10eko Ebazpenaren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar zituzten pertsonen lehen zerrenda osagarria, lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitzat jo zituztelako.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko irailaren 23ko Ebazpenaren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar zituzten pertsonen bigarren zerrenda osagarria. Era berean, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2026ko apirilaren 23ko Ebazpenaren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar zituzten pertsonen hirugarren zerrenda osagarria.

Eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, argitara ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar dituzten pertsonen laugarren zerrenda osagarria, lortu nahi duten lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitzat jo dituztelako.

Bestalde, adierazten da bi pertsona Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan aurkeztutako hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideak bereganatzeko prozesutik at gelditu direla. Ondorioz, hautatutako ordezkoren zerrenda erabili behar da, oinarri komunen 8.5.3 apartatuan xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitara ematea Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Agindua bidez deitutako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuetan, Hezkuntza Saileko hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzekoetan, hautatutako pertsonen laugarren zerrenda osagarria, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztelako, eta epea ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuko lan-kontratuak formalizatzeko. Pertsonen zerrenda hori I. eranskinean dago.

Bigarrena.— Hautatutako pertsonen (I. eranskinean zerrendatuta) ebazpen hau argitaratzen denetik aurrera sinatu beharko dituzte dagozkien lan-kontratuak.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-kontratua sinatzen ez duenak galdu egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioa lan-legepeko langile finko izateko eskubide guztiak, deialditik eratorritakoak.

Hirugarrena.— Argitara ematea hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideak bereganatzetik at gelditu diren pertsona hautatuak (II. eranskina).

Laugarrena.— Argitara ematea ordezkokoak, puntuazio-hurrenkeraren arabera, jasotzen dituen zerrenda, eta hautatutzat jotzea Hezkuntza Saileko lan-legepeko hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan, esleitutako lanpostua adierazita (III. erankina).

Bosgarrena.— Hamar egun naturaleko epea irekitzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, ebazpen honen III. eranskinean ageri diren izangai hautatuek egiaztatu dezaten parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak

betetzen dituztela, dagokion dokumentazioa aurkeztuta. Baldintza horiek Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren 2.3 oinarrian daude adierazita.

Dokumentazioa aurkeztuko da hemen: Hezigunea (<https://hezigunea.euskadi.eus>) («Era-biltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Tramitagune-Administrazio-espedienteak» – «Ireki espediente berria» – «Gainerako izapideak» – gaian «EPE 2022. Lan-legepeko hezitzaileak. Dokumentazioa entregatzea» adieraziz.

Ebazpen honen IV. eranskinean, zinpeko adierazpenaren eredua argitaratzen da, bai eta «Hautatuek agiriak entregatzeko» eredua ere. Eredua hori bete eta adierazitako helbidean aurkeztu beharko da.

Aipatutako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiriak aurkeztu ezean, edo, agiri horiek aztertuta, ikusiz gero, hautagaiak deialdiaren 2. oinarrian eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duela edo dagozkion zereginak betetzeko eskatzen den gaitasun fisiko edo psikikoa ez duela, ezin izango da lan-kontratuko langile finko bihurtu, eta beren jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira, eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 24a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN.

I. ERANSKINA

Kategoria: Hezkuntza-laguntzako espezialista.

Txanda: Orokorra.

NAN	Abizenak eta izena	Esleipena		
***1471**	Bermeosolo Bilbao, Ana	Berritzegune B06	3470 – 1035	HLEA
***4466**	Manterola Arostegi, Elisabet	Centro Terapéutico Gipuzkoa	3470 – 599	HLEA
***9619**	Ruiz Mihi, Natalia	Berritzegune B04	3470 – 666	HLEA

II. ERANSKINA

Kategoria: Hezkuntza-laguntzako espezialista.

Txanda: Orokorra.

NAN	Abizenak eta izena	Esleipena		
***9566**	Caño Caño Maria, Angeles	Berritzegune A02	3470 – 610	1. HE D.G.
***7306**	Usabel Urien, Zorion	Berritzegune A01	3470 – 34	HLEA

III. ERANSKINA

Kategoria: Hezkuntza-laguntzako espezialista.

Txanda: Orokorra.

NAN	Abizenak eta izena	Esleipena		
***0365**	Izquierdo López de Arroyabe, Margarita	Berritzegune A02	3470 – 610	1. HE D.G.
***2174**	Del Hoyo Cundín, Mikel	Berritzegune A01	3470 – 34	HLEA

IV. ERANSKINA

2022ko EPE. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua (Hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileak)

Hautatuek agiriak entregatzeko

Abizenak:		
Izena:	NAN:	Telefonoa:
Kategoria:		
Hautatua izan naiz Hezkuntza sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduen bidez deitutako egonkortzeko salbuespenezko prozesuan; hori dela eta, agiri hauek aurkezten ditut:		
Aurkeztuko dituzun agirien zerrenda ☐ Kategorian sartzeko eskatutako titulua edo jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. ☐ Nortasun Agiri Nazionala edo, atzerritarra bazara, dagokion dokumentua. ☐ Zinpeko aitortpena edo agindua. ☐ Desgaitasun-txanda: organo eskudunak, izaera hori aitortzeko, emandako ziurtagiria (% 33ko desgaitasuna). ☐ Epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen bategatik zigortua izan ez zarela adierazten duen ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina.		
Data, tokia		Izenpetua

Langileak Kudeatzeko zuzendariarentzat. Hezkuntza Saila.

2022ko EPE. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua (Hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileak)

Zinpeko aitortpena

Nik.....

NAN.....

Zinpeko aitortpena edo agindua EGITEN DUT edozein administrazio publikoren edo atunomia-erkidegoetako konstituzio- eta estatuto-organoen diziplina-espediente bidez zerbitzutik kentzeko zehapena jaso ez izana, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikorako desgaituntza absolutua edo berezia jaso ez izana, banantzeko edo desgaitzeko subjektua izan den funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko.

.....a(n), 2026ko.....rena

Izpta.:

Nazionalitate espainolik ez duten izangaiek betetzeko:

Nik.....

NAN.....

Zinpeko aitortpena edo agindua EGITEN DUT zinaren edo promesaren azpian desgaituntza-egoeran edo egoera baliokidean ez egotea, eta(e)an (estatuaren izena) enplegu publikora iristea eragozten didan diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, baldintza berberetan.

.....a(n), 2026ko.....rena

Izpta.: